

ELKARBIZITZA IKASgai

Kulturaren arteko harrekoen arteko proposamenak

Beste
pertsonak
onartzea



Jenio bat
larri-larri

UNITATE DIDAKTIKOA



Beste pertsonak onartzea



PASARTEA TESTUINGURURATZEN

- Argumentuaren laburpena _____ 4
- Sentsibilizaziorako lema nagusia _____ 4
- Unitate didaktikoaren ikuspegia _____ 4
- Helburuak _____ 5
- Hezkuntza eremu desberdinetarako orientabideak _____ 6

ARIKETAK

A

Sarrerarako eta sentsibilizaziorako ariketak

1. Berdintasuna - Desberdintasuna _10
2. Amarauna _____10

B

Pasartea aztertzeko ariketak

3. Iritzi orokorrak ____11
4. Pertsonaiak _____11
5. Harremanak eta erantzunak _____12
6. Amaiera _____13
7. Gainerakoak kontuan hartuta, zer onetsi eta zer gaitzesten dudan _____13
8. Gehien eta gutxien gustatu zaiguna _____13

C

Hausnartzeko eta sakontzeko ariketak

9. Berdintasuna desberdintasunean _14
10. Baztertzen duen gizartearen epaiketa _____16

Aurkibidea



D

Hiztegi-arietak

11. Hurbilketa edo gaitzespena _____ 18

12. Gauzen izenak _____ 19

E

Laburpen-arietak

13. Inkesta _____ 20

F

Azken arietak eta konpromisoa hartzeko arietak

14. Desberdintasunaren jai _____ 20

G

Eranskina: Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmena

pasartea testuingururatzzen



Argumentuaren laburpena

Josu eta
Mikel anaiak
badira ere, ez

dira inoiz berdina izango. Aitak horixe bera nahi badu ere, ezinezkoa da berez. Pertsonak aukera-multzo errepikaezinak dira. Mikel ez dabil oso ondo ikasketetan, baina trebetasun artistiko ugari ditu. Aurtengo Zientzia Azoka Arte Azoka ere izan zen, eta Mikelek bere trebetasunak erakusteko aukera paregabea izan zuen.

Sentsibilizaziorako lema nagusia

“Beste pertsonaren onespina”.

Unitate didaktikoaren ikuspegia

Beste pertsona onesten
denean, bere balioak,
gaitasunak eta

desberdintasunean dagoen berdintasuna onartzen dira.

Ezagutzeko, onesteko, onartzeko, partekatzeko... buru-estimua sendotu beharra dago. Dena dela, prozesu hori ezin da besteren kontura garatu, norberaren izaeran, norberak eduki eta garatzen dituen gaitasun eta balioetan oinarritu behar delako.

Beste pertsona onestean, elkarrekin bizitzeko moduko mundua eraiki ahal dugu, izaeretan, hizkuntzetan, kulturetan, erlijioetan, iritzietan, pentsaeretan... dauden aldeak eta guztion gizalegea oinarri.

“Ezagutzeko,
onesteko, onartzeko,
partekatzeko... buru-
estimua sendotu
beharra dago.”



Helburuak **Helburu nagusia**

Pertsonak, gure adineko neska-mutilak, batez ere, izaki originalak eta errepikaezinak direla onetsi, euren balioak, gaitasunak, aukerak eta aldeak errespetatu eta balioetsi eta edonolako bazterketa gaitzetsi.

Hezkuntza helburuak eta helburu didaktikoak

1. Beste herri eta kultura batzuetako pertsonen arteko aldeak zeintzuk diren eta gizartea hobetzeko zer egin duten jakin.
2. Gurea ez beste erkidego batzuetako pertsonen ohiturak eta bizimoduak onetsi.
3. Ikaskideen zailtasunak ulertu eta edonolako bazterketa gaitzetsi.
4. Elkarriketa balioetsi, familiako eta eskolako arazoei aurre egiteko.
5. Gainerako ikaskideei begi onez begiratu eta euren balioak zein aukerak ezagutu, neska-mutilen erkidegoan aintzat hartu ahal izateko.

“**Pertsonak izaki originalak eta errepikaezinak direla onetsi.**”





Zenbait hezkuntza-eremutarako orientabideak

Familia: familiaren zeregina ezin garrantzitsuagoa da, balioa duten gizarte-ereduak eratzeko orduan. Gurasoek eta beste senide batzuek eragin handia

dute beste pertsonen buruz dugun iritzian onean edo txarrean.

Hori dela eta, kontu handiz ibili behar da, beste kultura, janzkera... batzuetako pertsonen buruzko iritzia informal txarrak ematean edo pertsona horiek mesprezatzean.

Aldi berean, oso garrantzitsua da neska-mutilekin hitz egitea eta euren balio onak adieraztea. Horrez gain, beharrezkoa denean, jokabide zehatz batzuk gaitzetsi behar dira, eta azaldu egin behar da jokabide horiek ez direla arraza-talde baten edo sorterri baten ezaugarri, gizartearen modu gaitzesgarrian jokatzeko pertsona bat edo bestea delako jokabide horien erantzule bakarra.

“... berdintasunean berdina garelako adierazten duen hausnarketan oinarrituta.”

Eskola: pasarte honi buruzko hausnarketak “Beste pertsonaren onespina” du oinarri.

Ikasgeletan aniztasun-baldintzak gero eta nabariagoak direnean, ezinbestekoa da ikaskide berriak onestea, berdintasunean berdina garelako adierazten duen hausnarketan oinarrituta.

Lan hori oso lagungarria da pasartearen ikusteko orduan.

Helburua ez da eskuzabaltasuna edo errukia piztea, pertsona desberdina onesteko, onartzeko eta balioesteko jarrera sustatzea baizik. Izan ere, jarrera horrek zerikusi handiagoa du justiziarekin eta giza eskubideekin. Era berean, behar-beharrezkoa da ulertzea desberdina ez direla “besteak”, pertsona guztiak baino.





Bestea onestean, besteak balioetsi eta onetsi egiten gaitu. Horra hor elkarbizitzaren oinarria.

Gaia bera Tutoretzarekin, Komunikazioarekin edo Ingurunearen Ezagutzarekin zerikusia duen eremu didaktikoan jorratu ahal da.

Curriculum-eremu guztiak lantzen dituen diziplinarteko proiektua garatzea izango litzateke egokiena. Horrela, bada, zenbait ikuspegitatik jorratu ahal izango da gaia.

“Curriculum-eremu guztiak lantzen dituen diziplinarteko proiektua garatzea izango litzateke egokiena.”

Dena dela, jarrerak landuko direnez, neska-mutilek banan-banan eta taldeka hausnartu ahal izango dute ikasgelako giroari eta ohiko ariketei esker. Horiek horrela, hausnarketa

horiek neska-mutilen bizitzako beste esparru batzuetara eraman ahal izango dira; esate baterako, Aisialdi Zentrora eta familia-girora.

Aisialdia: eskolako eta edukiko arauetatik kanpo dagoen aisialdiari esker, aldeak eurak bizi ahal ditugu aberastasunetik, eta alde horietan sakondu ahal dugu, aberastasunaren, topaketaren, osagarritasunaren, balioaren adierazgarri direlako.

Banakotasunak taldearen testuinguruan duen balioa eta taldearen beraren eraketa nabarmentzea da aisialdiko jardueren eta agerpenen helburua, banakotasunaren balioan oinarrituta.

Proposatutako ariketen eta banan-banako desberdintasunaren esperientziaren bidez, taldea bera eratzen da, gizartearen beraren irudia, alegia.



ESKOLA. Curriculum eremua

Tutoretza

1. Berdintasuna -
Desberdintasuna _10
2. Amarauna _____10
3. Iritzi orokorrak ____11
4. Pertsonaiak _____11
5. Harremanak eta
erantzunak _____12
6. Amaiera _____13
7. Gainerakoak
kontuan hartuta,
zer onetsi eta
zer gaitzesten
dudan _____13
8. Gehien eta
gutxien gustatu
zaiguna _____13
11. Hurbilketa edo
gaitzespena _____18
14. Desberdintasunaren
jaia _____20

Hizkuntza

3. Iritzi orokorrak ____11
4. Pertsonaiak _____11
6. Amaiera _____13
8. Gehien eta gutxien
gustatu zaiguna _13
11. Hurbilketa edo
gaitzespena _____18
12. Gauzen izenak ____19

Ingurunearen ezagutza

3. Iritzi orokorrak ____11
4. Pertsonaiak _____11
9. Berdintasuna
desberdintasunean 14
10. Baztertzen duen
gizartearen
epaiketa _____16
13. Inkesta _____20

AISIALDI HEZIGARRIA. Tipologia

Soziodramatikoak

2. Amarauna _____10
10. Baztertzen duen
gizartearen
epaiketa _____16

Kreatiboak

9. Berdintasuna
desberdintasunean _14
12. Gauzen izenak ____19

Talde-erakuntza

3. Iritzi orokorrak ____11
4. Pertsonaiak _____11
5. Harremanak eta
erantzunak _____12
6. Amaiera _____13
7. Gainerakoak
kontuan hartuta,
zer onetsi eta
zer gaitzesten
dudan _____13
8. Gehien eta
gutxien gustatu
zaiguna _____13

Ariketak



Kooperatiboak

1. Berdintasuna -
Desberdintasuna ____10
9. Berdintasuna
desberdintasunean ____14
13. Inkesta ____20

Harremanak bultzatzekoak

1. Berdintasuna -
Desberdintasuna ____10
5. Harremanak eta
erantzunak ____12
11. Hurbilketa edo
gaitzespena ____18

Jai era jardunaldiak

14. Desberdintasunaren
jaia ____20

**A****Sarrerarako eta
sentsibilizaziorako ariketak****1. ariketa ~ "Berdintasuna - Desberdintasuna"**

Pasarteak ikusi baino lehen, arreta sustatzeko giro lasaia sortu beharra dago. Ariketa ezin hobea izango litzateke aldeei buruzko elkarrizketa laburra sortzea taldea girotzeko.

Honako hauek izan ahal dira galderak: Zertan gara berdinak? Zertan gara desberdinak? Zer parekotasun ditugu? Zer desberdintasun ditugu?...

Beste bat baino garrantzitsuagoa edo ez hain garrantzitsua izatea da desberdina izatea?

2. ariketa ~ "Amarauna"

Jokoak nork bere ezaugarriak azaltzea du helburu. Horretarako, honako une hauek dituen jokoa egingo dugu:

1. unea. "Amarauna ehuntzen". Taldea biribilean jarri eta honako hau azalduko zaio:

"Amarauna ehunduko dugu. Armiarma berezia izango da oso, ezaugarri onak, ondo egiten ditugun gauzak edo poztasuna ematen diguten gauzak dituelako elikagai. Honela garatuko da jokoa: hasieran, boluntario batek bere ezaugarri bat esango du, eta, horri esker, artilezko mataza jaurti eta mutur batetik helduko dio. Bata bestearen atzetik, harro egoteko moduko ezaugarri bat esango dute taldekide guztiek, beste ikaskide bati mataza jaurti eta artile-zati bati helduko diote. Taldekide guztiek artilearen mutur bana dutenean, jokoaren lehenengo zatia amaituko da."

Jokoa azaldutako moduan garatu eta hurrengo faseari ekingo diogu.



2. unea. “Amarauna askatzen”. Amarauna askatzeko, pertsona guztiek ahoz gora esango dute ikaskideen ezaugarri bana eta mataza itzuliko diete. Hona hemen azalpena:

“Orain, amarauna askatuko dugu. Adierazi dizuedan bezala, ezaugarriak ditu elikagai. Mataza jasoko duen pertsonaren ezaugarri bat aipatuko dugu, mataza askatu ahal izateko. Mataza berriro artilez beteta dagoenean, jokoa amaitu egingo da. Lasai egon, ondo pentsatu ahal duzue zer esan nahi duzuen.”

3. unea. “Ondorioak”. Honako hauei buruzko hausnarketa egin: Nola pasatu duzue?, nola sentitzen zarete zeuei buruzko ezaugarri on bat esan behar duzuenen?, nola sentitzen zarete gainerakoak laudatzen dituzuenen?

B Pasarteak aztertzeko ariketak

3. ariketa ~ "Iritzi orokorrak"

Lehenengo iritziak: pasarteak ikusi ondoren, lehenengo iritziak idatziko ditugu arbelean.

Iritzi orokorra: iritzi guztien laburpena egin ondoren, iritzi orokorra aterako dugu.

Argumentuaren laburpena: argumentuaren laburpena egingo dugu. Fase hori garrantzitsua da taldearen ikuspegi bateratua izateko.

4. ariketa ~ "Pertsonaiak"

Parte hartzen duten pertsonaien ezaugarriak adieraziko ditugu. Lehenengo eta behin, pertsonaiak nortzuk diren azalduko dugu, nolako ezaugarri fisikoak dituzten, zer ezaugarri dituen euren nortasunak, zeintzuk diren alderdi nabarmenenak.





Pertsonaia	Nolakoa da?	Zer jokabide dauka?	Zer iritzi du Mikeli buruz?	Zer iritzi du Josuri buruz?	Zer deritzozu bere jokabideari?
Josü					
Mikel					
Irakaslea (gizona)					
Aita					
Ama					
Laguna, Dani					
Irakaslea (emakumea)					
Beste ikaskide batzuk					

5. ariketa ~ "Harremanak eta erantzunak"

Ariketa honek taldean/ikasgelan garatutako elkarrizketa du oinarri. Hasi baino lehen, eztabaida egin daiteke talde txikietan, edo banan-banako lan-fitxa ere bai. Pasarteak zer iradoki dien aztertzea da helburua.

Honako hau pentsatzen du Mikelek...

Nola ikusten duzu anaien arteko harremana?

Josuk Mikeli buruz duen iritzia

Mikelek Josuri buruz duen iritzia

Berbera eskatzen diegu guztiei?

Aitaren esanetan, bere etxean berbera eskatzen zieten guztiei.

Bestelakoa da etxe horretan?

Amaren esanetan, etxe horretan hori guztia bestelakoa da, eta Mikeli ez zaio ezer eskatu behar...

Zergatik jokutzen du Josuk horrela, Mikeli ezer galdetu gabe?

Zelan jokutzen du Mikelek hasieran?

Eta ondoren?

Zer deritzozu anaien arteko konfiantzari? Eta lehiari? Eta komunikazioari?





6. ariketa ~ "Amaiera"

Nola erantzuten dute pertsonaiek pasartearen amaieran? Eztabaidari ekingo diote taldean, eta pertsona batek ikaskideen ekarpenak idatziko ditu arbelean.

Pertsonaia	Zergatik?	Nolako jokabidea dauka?	Zer esango zenioke?
Joşu			
Mikel			
Inakaslea (gizona)			
Aita			
Ama			
Laguna, Dani			

7. ariketa ~ "Gainerakoak kontuan hartuta, zer onetsi eta zer gaitzesten dudan"

Ariketa honi esker, jokabideei buruzko autoazterketa egin ahal dugu. Zer gaitzesten, zer onartzen dudan gainerako pertsonetan eta zergatik.

Lehenengo eta behin, banan-banan egingo da, eta, ondoren, talde txikietan. Pertsonak eta taldeek desberdintasunaren aurrean dituzten jarreraren azterketa aberatserako aukera paregabea eskaintzen du.

Onartu egiten dut	Zergatik?	Gaitzetsi egiten dut	Zergatik?

8. ariketa ~ "Gehien eta gutxien gustatu zaiguna"

Neska-mutilek gehien balioetsi dituzten pasarteko alderdiak eta edukiak nabarmendu nahi ditugu.





Taula osatutakoan (talde txikitan egin daiteke, edo bestela, arbelean edo horma-irudian, talde handi batean), aztergai dugun gaiarekin zerikusia duten osagaiak nabarmenduko ditugu: berdintasuna desberdintasunean.

Gehien gustatu zaidana	Gutxien gustatu zaidana

Ondoren, idatziz edo komiki moduan berridatzi ahal dugu istorioa.

C Hausnartzeko eta sakontzeko ariketak

9. ariketa ~ "Berdintasuna desberdintasunean"

Hona hemen 20 proba ikasgelaren diagnostikoa egiteko. Guzti-guztiak edo batzuk egin ahal dira. Era berean, ikasgela osoak batera edo taldetan egin ahal du, edo bestela, Aisialdi Zentroan egin ahal da. Taldetan eginez gero, zenbait proba egin ahal ditu talde bakoitzak.

Datuak behar bezala jasotzea da garrantzitsuena. Horretarako, honelako taula bana erabili ahal dute neska-mutilek.

Gero, datu guztiak jasotakoan, horma-irudi handia egingo dute, talde handi batean eztabaidatzeko.

	1. proba	2. proba	3. proba
Lourdes Antón			
Kepa Arretxe			
Antonio Montoya			
Tania María Restrepo			



Desberdintasunaren hogei probak

1. Ikasgelako ikasleen adina jaso.
2. Ikasleen sexua idatzi.
3. Guztiok pisatu eta emaitza idatzi.
4. Neurtu eta zuen altuera idatzi.
5. Guztion oinetako-zenbakia idatzi.
6. Guztion begien kolorea jaso.
7. Guztion ilearen kolorea idatzi.
8. Guztion azalaren kolorea jaso.
9. Guztion ama-hizkuntza idatzi, bai eta etxean hitz egiten duzuen ere.
10. Jaiotzako herrialdea, hiria, herria adierazi.
11. Orain, zenbait ariketa fisiko egingo ditugu. Guztiok ibilbide zehatza ahalik eta azkarren egiteko zenbat denbora behar duzuen neurtu.
12. Hamar jaurtiketa libreraren ondoren egindako saskiratzeak zenbatu.
13. Zer altueratatik egin ahal duzue jauzi?
14. Zelan luzera-jauzia?
15. Gimnasiako tresnak erabili: plintoa eta zaldia. Bertan jauzi egiteko gai zarete?
16. Zer janari duzue gustukoen?
17. Beste gai batzuk jorratuko ditugu: 14 bertsoko olerkia aukeratu. Zenbat denbora behar duzue buruz ikasteko?
18. Hona hemen beste proba bat: 100etik gora hitzeko prosa-testua aukeratu (zuen mailaren arabera) eta zer abiaduratan irakurtzeko gai zareten eta irakurtzean zer akats dituzuen neurtu.
19. Orain, eredia jarri klasearen aurrean eta kopiatzen saiatu. 1etik 10era arteko puntuazioa emango duzue errealitatearekiko antzekotasuna balioesteko.
20. Gogokoen dituzuen zaletasunak adierazi.



Azterketa egindakoan, eztabaida jarriko dugu abian, ondorio interesgarriak ateratzeko. Horretarako, banan-banan eta taldeka osatu beharko dute honako taula hau:

Berdinak egiten gaituzten ezaugarriak	Desberdinak egiten gaituzten ezaugarriak
10 parekotasun	10 desberdintasun
1	1
2	2
3	3
4	4
5	5
6	6
7	7
8	8
9	9
10	10

Bi taulok alderatuz gero, ondorio mamitsuak atera ahal izango dituzte neska-mutilek.

10. ariketa ~ "Baztertzen duen gizartearen epaiketa"

Hona hemen Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmena oinarri duen ariketa*.

Epaiketa bat antzeztuko dugu. Horretarako, zenbait lan-talde antolatuko ditugu.

Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmena izango da abiapuntua. Agiri hori irakurri eta taldearen ikerketaren helburu izango diren hamar galdera prestatu. Galdera horien bidez, inguruko pertsonen artean jasoko dute informazioa: irakasleak, ikaskideak, senideak, auzokoak, lagunak...

Hitzarmena oinarri, txostena prestatu jasotako informazioaren bidez. Izan ere, txosten hori izango da jendaurreko epaiketaren xedea.

* Neska-mutilentzako bertsioa, 21. orrialdeko eranskinean.



- **Jendaurreko epaiketa:** abian jartzeko, taldetan banatuko da ikasgela edo elkarteak:
- **Akusazio-taldeak:** hiru edo lau pertsonak akusazioa garatuko dute, bildutako informazioaren arabera.
- **Defentsa-taldea:** hiru edo lau pertsonak gizartea defendatuko dute, bestelakotzat hartutako pertsonen ustezko bazterketa-delitua egotzi zaiolako.
- **Auzitegia:** saioa eratuko du, gizarteari egozten zaizkion delituen arabera epaitzeko. Saioari hasiera emango dio, hitza emango du, ohartarazpenak egingo ditu eta ondorioak aterako ditu.
- **Zinpekoak:** ikasgelaren edo taldearen gaineratikoak eratuko du. Oharrak hartuko dituzte. Ondoren, bozkatu egingo dute. Era berean, “boto partikularrak” eman ahal izango dituzte, hau da, zinpekoek adierazpen gehigarriak eman ahal izango dituzte, euren botoa azaltzeko.
- **Jendaurreko epaiketako idazkariak:** oharrak hartzen dituzte, laburpenak egiten dituzte, epaiketako txostena idazten dute.
- **Epaiak:** epaiak formaren arabera idatziko da, eta “kontuan hartuzko” guztiak azalduko dira, hau da, emandako epaiaren oinarri diren arrazoibideak.

Era berean, komunikabideetan emango da epaiaren berri: eskolako egunkaria, horma-irudiak, eskolako irratia, elkarteko egunkaria...





D

Hiztegi ariketak

11. ariketa ~ "Hurbilketa edo gaitzespena"

Honako hitz edo esaldi hauek ni ez bezalako pertsonenganako hurbilketaren edo gaitzespenaren adierazgarri izan ahal dira:

- Ez dut gustuko bera ikustea.
- Atsegina da.
- Beldur diot.
- Lotsa ematen dit.
- Nire laguna da.
- Arraroa da.
- Denek zeharka begiratzen diote.
- Oso ondo ulertzen dit.
- Zerbaitetan bestelakoak gara.
- Engela da.
- Ez dakit zer sentitzen duten atzerritarrek.
- Pena ematen dit.
- Ez dut ulertzen zer dioen.
- Oso dibertigarria da olgetan.
- Usain txarra du.
- Ez dit ulertzen.
- Gaiztoa da.
- Oso dibertigarria da berarekin jolastea.
- Oso itsusia da.
- Nire laguna izan daiteke.
- Ez dakit nolakoa den ezagutzen ez dudalako.
- Maite egiten dut.

Sailkatzeko orduan, gaitzespen gehien edo hurbiltasun gehien adierazten dutenak hartu kontuan.

HURBILTASUNA	GAITZESPENA
1.-	1.-
2.-	2.-
3.-	3.-



Egindakoan, begiratu nolako aldeak dituzun ikaskideekin eta horri buruzko iritziak trukatu.

12. ariketa ~ "Gauzen izenak"

Hizkuntzek euren hizkera dute. Eskualde bakoitzean, hizkuntzak bestelako doinua, soinua, koloreak ditu.


Atal honetan, Kolonbiako hizkera ezagutzea da helburua, gaztelaniazko serieko protagonisten ezaugarria da eta. Bere doinua bilatuko dugu, Penintsulako gaztelaniaz, euskaraz, galizieraz, katalanez, ingelesez, frantsesez edo ezagutzen ditugun beste pertsona batzuen hizkuntzetan dituen baliokideak bilatuko ditugu. Hizkuntzak berak aldeak adierazten ditu batzuetan.

1. Hitz eta esamolde deigarriak aipatuko ditugu. Hona hemen nabarmenenak.

- **Chévere:** oso ona, zoragarria, itzela.
- **Zientzia Azoka:** Amerikako herrialdeetan sarritan antolatzen da eskolako jarduera hau. Bertan, ikasleek euren sormen-lanak, aurkikuntzak eta asmakizunak jartzen dituzte ikusgai. Trebetasun bereziak adierazteko aukera ematen die ikasleei.
- **Aztertu egingo ditu:** ikuskatu egingo ditu.
- **Asmakizuna ez da ona:** asmakizuna ez da egokia.
- **Morralla:** motxila.
- **Arte Eskola:** Arte Ederretako Fakultate antzekoa da edo sormenezko eta eskuzko jarduerekin zerikusia duten ikasketen fakultatea.

2. Beste hizkuntza batzuetako baliokideak bilatu:
euskara, gaztelania, galiziera, katalana, valentziera, ingelesa, frantsesa, arabiera, txinera...

3. Esaldiak egin eta abestia (rapa) asmatuko dugu hizkuntza horren doinua kontuan hartuta.





Laburpen ariketak

13. ariketa ~ "Inkesta"

Ariketa honetan, neska-mutilengandik hurbilen dagoen testuinguruko iritziak jasoko ditugu. Horretarako, inkestaren teknika erabiliko dugu, eta ikastetxean, familian, auzoan... bertan jaso ahal dugu informazioa.

3 edo 4 laguneko taldeak eratuko ditugu.

1. Atzeritarren gizarteratzeari buruzko inkesta prestatu.
2. Gai horri buruzko hiruzpalau galdera prestatu.
 - Eskolako edo inguruko hamabost pertsonari galdetu, gutxienez.
 - Galdera guztiak jaso dituzuenean, jendeak gai horri buruz duen iritziazen gaineko ondorioak atera.
 - Taldeen ondorioei buruz eztabaidatu.



Azken ariketak eta konpromisoa hartzeko ariketak

14. ariketa ~ "Desberdintasunaren jaia"

Unitate honetako lanari amaiera emateko, desberdintasunaren askaria antolatuko dugu. Taldekideek zer eramango duten erabakiko dute. Zenbait eskualdetako, herrialdetako... litxarreriak eraman ahal dituzte. Maskara, kartel edo moztarro bana prestatuko dute, euren ezaugarri bereizgarriak, bitxiak eta onak nabarmentzeko. Jokoak antolatu eta zenbait kulturatako musikak entzungo dituzte. Egindako lan guztien bidez apainduko dute aretoa. Lanak birpasatu eta ezagututakoa edo hausnartutakoa zehatzago adieraziko dute esaldi edo eslogan baten bidez. Hori guztiori ELKARREKIN BIZITZEN IKASTEN ibilbidean jarriko dute eta ikasturtean zehar osatu beharko dute ibilbide hori.



G

Eranskina: Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmena

HITZARMENEAN JASOTAKO ESKUBIDEEN ENUNTZIATUAK

1. Neska-mutila: zure eskubideak Hitzarmen horretan daude jasota, beti ere 18 urte bete ez badituzu.

2. Eskubide guztiak, neska-mutil guztientzat: eskubide horiek guztiak izateko eskubidea duzu, zure sexua, erlijioa, maila ekonomikoa edo gaitasun fisikoa edo adimen-gaitasuna edozein dela ere. Estatuak berak bermatuko du umeei bazterketarik ez jasatea.

3. Neska-mutilak, lehenengoak: zure eskubidea da estatuak lehenengo eta behin umeen premiei aurre egitea neska-mutiletan eragina duen edozein gaitan.

4. Bete beharreko eskubideak: zure eskubidea da estatuak zure eskubideen alde egitea eta beste herrialde batzuekin lan egitea, bertan ere errespetatu ditzaten.

5. Gurasoen zainketa eta gida: zure eskubidea da zeure gurasoek edo legearen arabera zure ardura duten beste pertsona batzuek zu zeu zaintzea eta orientatzea eta estatuak eurei laguntza ematea, hori egiteko zailtasunik badute.

6. Bizitza eta norberaren garapena: zure eskubidea da estatuak zure bizitzaren eta garapen egokiaren alde egitea.

7. Izena eta naziotasuna: jaio eta berehala, izena edukitzeko eta herrialde bateko pertsona izateko eskubidea duzu.

8. Nortasunaren babesa: zeure naziotasuna, izena eta familia-

harremanak babesteko eskubidea duzu. Era berean, zure eskubidea da inork zure izena eta nortasuna zure baimenik gabe ez erabiltzea.

9. Gurasoengandiko banaketa: gurasoekin bizitzeko eskubidea duzu, beti ere tratu txarrik jasaten ez baduzu. Zure ongizateari begira, gurasoengandik banatu baino lehen, entzun egin behar dizute eta zure gurasoei ere entzun egin behar diete. Guraso batengandik banatuta egon behar duzunean, berarekin harremanetan egoteko eskubidea duzu. Gurasoetako bat zugandik banatu behar izan bada, non dagoen jakiteko eskubidea duzu.

10. Familia berriro elkartu: gurasoak ez dauden herrialdean bizi bazara, eurekin ahalik eta arinen elkartzeko eskubidea duzu.

11. Legez kontra atxiki eta eraman: zure eskubidea da estatuak behar beste neurri hartzea beste herrialde batera legez kontra eraman eta bertan atxiki ez zaitzaten.

12. Iritzia: zeure iritzia askatasunez adierazteko eskubidea duzu. Horrez gain, zure eskubidea da zure iritzia kontuan hartzea zugar eragina duten gai guztietan.

13. Adierazpen-askatasuna: askatasunez adierazteko eskubidea duzu, hau da, era guztietako informazioa eta ideiak bilatu, jaso eta hedatzeko eskubidea, beti ere beste pertsona batzuen eskubideak urratzen ez badituzu. Testu ofizialaren bertsioa.

* Testu ofizialaren bertsio propioa.



14. Pentsaera, kontzientzia eta erlijio askatasuna: zeure ideiei, sinesmenei eta erlijioari eusteko eskubidea duzu. Zure gidariak izateko eskubidea eta betebeharra dute gurasoek.

15. Elkartzeko askatasuna: beste neska-mutil batzuekin elkartzeko eta bilerak egiteko eskubidea duzu.

16. Bizitza pribatua: zure eskubidea da besteei zure bizitza pribatua, etxea eta gutunak errespetatzea eta inork zure ohorea eta izen ona ez iraintzea.

17. Informazio egokia eskuratu: komunikabideen bitartez informazioa jasotzeko eskubidea duzu. Horrez gain, zure ongizaterako kaltegarria den informaziotik babestu behar zaituzte eta zuretzat egokiak diren liburuak eta saioak ekoitzi behar dituzte.

18. Gurasoen erantzukizuna: zure eskubidea da gurasoek zu zeu zaintzea eta estatuak zure atentzio egokia bermatzea, gurasoak lanean daudenean.

19. Tratu txarrak: zure eskubidea da besteei zu zeu gurasoen eta zure ardura duten beste pertsona batzuen utzikeriatik, tratu txarretatik, esplotaziotik edo indarkeriatik babestea.

20. Familia-ingurunetik aldentu: babesa eta laguntza berezia jasotzeko eskubidea duzu, familiaren ondoan aldi baterako edo behin betiko egoterik ez baduzu.

21. Adopzioa: familia izateko eskubidea duzu. Adoptatzen bazaituzte, zure eskubidea da ondoen atenditu ahal zaituen familia aukeratzea eta inork prozesu horretatik etekinik ez ateratzea.

22. Neska-mutil iheslariak: laguntza eta babes berezia jasotzeko eskubidea duzu, beste herrialde batera ihes egin behar baduzu. Horrez gain, harrera-herrialdean zeure eskubideei eusteko eta, ahal izanez gero, familiarekin elkartzeko eskubidea duzu.

23. Elbarrien gizarteratzea: elbarritasun fisikorik edo adimen-elbarritasunik baduzu, zainketa eta hezkuntza egokia jasotzeko eskubidea duzu, ahalik eta autonomia handiena lortzeko. Era berean, gainerako neska-mutilekin biziitzeko eta gizartearen bete-betearen parte hartzeko eskubidea duzu.

24. Osasuna eta medikuntzako zerbitzuak: elikadura egokia, edateko ura, kutsatuta ez dagoen ingurumena eta ez gaixotzeko zainketak jasotzeko eskubidea duzu. Era berean, zure eskubidea da medikuntzako atentzioa jasotzea, behar duzunean, eta estatuak bere esku dagoen guztia egitea, zure osasunerako kaltegarriak diren ohiko jarduerak desagerrarazteko.

25. Sarrera: osasun fisikoaren edo buruko osasunaren ondorioz, establezimendu publiko batean, familia-ingurunetik kanpo sartu bazaituzte, besteei zure egoera aldian-aldian berrikusteko eskubidea duzu.

26. Gizarte Segurantzak: Gizarte Segurantzak izateko eskubidea duzu.

27. Bizi-maila: gorputzari, buruari, izpirituari, moralari eta gizarteari begira, ondo hazteko beharrezko baliabideak izateko eskubidea duzu. Horrez gain, estatuak zure familiari lagundu behar dio, gurasoek zu zeu behar bezala atenditzeko aukerarik ez dutenean.

28. Hezkuntza: derrigorrezko eta doako lehen hezkuntza jasotzeko eskubidea duzu. Era berean, zure eskubidea da goi-mailako irakaskuntzara aukeraberdintasunean iristea eta eskolako elkarbizitza-arauek pertsona moduan duzun duintasuna errespetatzea.

29. Hezkuntzaren helburua: zure nortasuna eta gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko moduko hezkuntza izateko eskubidea duzu. Era berean, Giza Eskubideen errespetuan hezi



behar zaitu eskolak, arduraz bizitzeko prestatu behar zaitu ulermenean, bakean, tolerantzian, gizon eta emakumeen arteko berdintasunean, bestelako herri eta kulturen errespetuan eta ingurumenarekiko errespetuan.

30. Gultxiengoak eta herri indioak: gutxiengo etnia edo herri indio batekoa izanez gero, zure eskubidea da zeure bizitza kulturala garatzea, zeure ohiturak lantzea eta zeure hizkuntzan hitz egitea.

31. Atsedena, jokoa eta kultur jarduerak: jolasteko, atsedena hartzeko eta kirol, arte edo kultur zaletasunak lantzeko eskubidea duzu.

32. Lana: zure osasunerako arriskutsuak edo kaltegarriak diren lanetan edo ondo hazten, jolastan edo ikasten uzten ez dizuten lanetan ez jarduteko eskubidea duzu. Era berean, zure eskubidea da baimendutako adina baino lehen ez lan egitea eta laneko ordutegiak eta baldintzak behar bezala arautzea.

33. Drogen erabilera eta trafikoa: drogen legez kanpoko erabileraren aurka babestua izateko eskubidea duzu. Era berean, zure eskubidea da inork zu zeu ez erabiltzea, drogak ekoizteko eta legez kanpo trafikatzeko orduan.

34. Sexu-esplotazioa: esplotaziotik, sexu-abusuetatik, pornografiatik eta jarduerak pornografikoetatik babestua izateko eskubidea duzu.

35. Salmenta, salerosketa eta trafikoa: zure eskubidea da estatuak behar beste neurri hartzea inork bahitu edo saldu ez zaitzan.

36. Esplotatzeko beste modu batzuk: edozein eratako esplotaziotik babestua izateko eskubidea duzu.

37. Tortura eta askatasun-gabezia: torturarik, zigorrik edo tratua anker edo iraingarriak ez jasateko eskubidea duzu. Era berean, zure

eskubidea da inork zuri biziarteko kartzela-zigorra eta heriotza-zigorra ez ezartzea eta zu ez kartzelaratzeko, beti ere beste neurriren bat hartzerik ez badago eta epe laburrerako bada. Halakoetan, zure eskubidea da helduengandik banatua egotea, gizalegezko tratua jasotzea, familiarekin harremanetan egoteko aukera izatea eta laguntza juridiko azkarra bezain egokia izatea.

38. Gatazka armatuak: baimendutako adina izan baino lehen, gatazka armatuetan zuzenean ez parte hartzeko eskubidea duzu. Zure erkidegoan gatazka armaturik badago, babes berezia jasotzeko eskubidea duzu.

39. Errehabilitazioa eta berririo gizarteratzea: utzi egin bazaituzte edo abusua, esplotazioa edo beste era bateko indarkeria jasan baduzu, tratamendu berezia jasotzeko eskubidea duzu, zure susperraldia eta gizarteratzea bermatzeko.

40. Adingabeentzako justizia: zure eskubidea da besteek zu zeu duintasunez tratatzea eta defendatzea, delituen bat egozten dizutenean edo delituen baten erruduna zarela ebazten dutenean. Ahal den guztietan, zure eskubidea da besteek zure prozesamendu judiziala saihestea, erakunderen batean ez sartzea eta behar besteko laguntza jasotzea, berririo ere gainerakoekin bizitzeko aukera izan dezazun.

41. Hitzarmena hobetzeko legeak: zure eskubidea da beste edozein lege ezartzea, zure eskubideak babesteko orduan Hitzarmen hau baino onuragarriagoa bada.

42-54. Hitzarmenaren hedapena: zure eskubidea da estatuak neska-mutilei eta gizarte osoari Hitzarmenaren berri ematea eta behar beste izapide bideratzea Hitzarmena bera ezartzeko eta indarrean sartzeko.

© EDEX, 2003

Egileak:

Rafael Mendieta eta Roberto Flores

Argitaratzailea:

EDEX

 Particular de Indautxu, 9. 48011 - Bilbao

 94 442 57 84  94 441 75 12

 edex@edex.es

 www.edex.es

ISBN: 84-9726-147-X

Obra osoaren ISBN: 84-9726-145-3

Lege gordailua: BI-3000-03

Mod.: 164645

© Edizio honen eskubide guztiak EDEXenak dira, eta bere idatzizko baimena aldeztu aurretik izan gabe, ez dago lana oso-osorik edo zatika kopiatzerik.

"Gizalegezko kultura partekaturantz doan
eta gizakiaren eskubideetan oinarrituta
dagoen hezkuntzak soilik saihestuko du
desberdintasunek diferentziak sortzea, eta
berezitasunek etsaitasuna ekartzea."

Rodolfo Stavenhagen.
"Hezkuntzak altxorra dauka barruan".
DELORS TXOSTENA. UNESCO

Ekimenaren arduraduna:



Particular de Indautxu, 9
48011 Bilbao
www.edex.es • edex@edex.es

Kolaboratzailea:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAETAKO SAILA
Inmigrazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Inmigración

